

Batasuna dala ta

Azkenengo illabeteotan, BATASUN itza zenbat ezpan eta idazkitan darabilgun euskaldunok! Ames eder, egiazko biurtzeko, gorriak igaro be arko dituan ames ederra! Inoiz biur-tuko ete da baiña? Ez deusku ar-dura andirik emoten badaezpadako* gertakizun* onek. Bete daiguzan bizi garean une onetako zeregiñak, eta gaiñerakoak berez berez etorriko jakuz.

ANAITASUNA'ren 163 gn. zenba-kian, San Martiñek batasunari jago-kona argi ta garbi aztertu dau. Bere idazlana irakurri ondoren, ez dogu ezbairik*, batasunaren arloa esku onetan dagoala.

Oker bat zuzentzeko, ez da naikoa, oker ori nun dagoan jakitea. Orrez gaiñera, ezagutu egin bear da zek jokutzen dauan oker: ikusi lengo, oraingo ta —al bada— geroko era-gozpenak, eta gero komeni dan lez jardun. Ta orretarako, zeintzuk ego-kiagoak San Martin eta Euskaltzain-di osoa baiño? Oneik izango dira, ereindako batasunaren soloa jorra-tuta eskinduko* deuskuenak, gero geuk —al dogun neurrian— solo ori zaindu ta joritu* daigun.

Euskaldun bakotxak euskalki bi jakin bear leukezala, San Martin herari itzaldi baten iaso neutsan. Onela izanik, ta ez deritxot asko es-katzea danik, batasunezko makiña-txo bat prolema konpondutzat baz-tertu bearko geunkez. Eta zeintzuk izango ete litzakez euskalki oneik?

Zentzuak berak diñosku: Geurea ta geurearen urrena. Esate baterako, bizkaitarrok geurea ta giputzena.

Orixek, bere «EUSKALDUNAK» poemearen itzaurrean*, euskalkiei buruz erriaren jokerea azaltzen deusku: «Eguzki aldera jotzen du erriak ere». Ta pizka bat lenago: «Napar euskera, Lapurdin eta Gipuzkoan ez da arrotz egiten». Onela jar-dunaz, bizkaitarrok eguzki aldera jo-ten badogu, uste dogun baiño erre-zago ia Goierrri bertaraiño sartuko gara, len be aspalditik, Gipuzkoako erri askotan sartuak gara-ta. Gaiñe-ra, napar euskerea Lapurdin eta Gi-puzkoan etxeko dala egia bada, errez lortu leiteke batasuna, euskal-ki giputz-napparra nagusi dala.

Azkuek, «EUSKALERRIAREN JA-KIÑTZA»ren itzaurrea* amaitzera-koan, beste argitasun bat emoten deusku: «Itzaurre au (euskaldun geienentzat errezena dalako) gipuz-keraz irakurtean...».

Askok, ganorazko batasun batera eltzeari, ia eziñezkoa eritxiko deut-soe; baiña ez da orrelakorik. Erri-berbetak batu bearko bagenduz, ti-ra... orduan ba leiteke. Baiña eus-ker a idatziaren batasuna, batez be goimaillakoarena, lortu gurarik ga-biltzanontzat ez dago eziñik, izuga-rrizko premiñea baiño. EZINA, EKI-ÑAZ, EGINA. Gogoan izan dai-gun ba.

AMATIÑO